

## 7. FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Orain arte aipatu dugun bezala, luzkleta bizikleta estatiko batean oinarritzen da, eta bizikleta horrek energia sortzen du, etxean edo establezimendu jakin batzuetan sortutako energian laguntzeko gai dena. Horretarako, ezinbesteko materiala bizikleta estatikoak eta energia kimikoa gordetzeko gai diren bateriak dira.

Lehen aipatu dugun bezala, bateriak eta bizikletak beste enpresa batzuei erosiko dizkiegu, baterien kasuan autosolar enpresari erosiko dizkiogu, bateria mota desberdin asko dituen enpresa bat da, gure kasuan energia kimikoa gordetzen duten bateriak beharko ditugu. Bizikletak BMX eta Orbea enpreseei erosiko dizkiegu, nazio mailan ezagunak izatea onurak ekarri ditzakeelako.

Nolanahi ere, materialaz gain, diseinatzaile grafiko baten laguntza behar dugu. Diseinadore grafikoaren lana, eredu desberdien diseinuan oinarritueko da, hasteko, gimnasioetako bizikleta estatikoetatik energia lortzeko ereduak sortuko du eta gainera web orria eta iragarkiak egiteaz arduratuko da, horrela erakargarriak direla ziurtatuko dugu.

